egunekoa

Ander Arzelus

(Gipuzkoako Foru Aldundiko ekonomista eta Mugaz Gaindiko Agentziako kidea)

«Baiona-Donostia Euskal Eurohiria», Lurraldearen interpretazio berri bat

Gipuzkoan eta Iparraldeko kostaldean dagoen guneanitzeko hiri sistema Europan nagusi den lurralde egitura hiritartuaren adierazle garbia izan daiteke. Hori dela eta lankidetza proiektuak jakin-min handia sortu du Europako zenbait eskualdetan, beren beharrak konpontzeko aukera berriak sustatu nahian. Hala, Europako Batasunak eta Lurralde Antolaketako ministroek bultzatutako hausnarketaren ondoren, Potsdamen 1999ko maiatzean adostu zuten Europako Lurralde Estrategiaren gaineko agiria, «Europako Batasuneko lurraldearen garapen orekatu eta eramangarria lortzeko bidean» izenburua duena, non Europako politika ezberdinei lurralde orientabide berria ematea proposatzen baita politika horien arteko koherentzia eta osagarritasuna sustatzearren, eta horrek askotan ohiko administrazio mugaketak gainditzea eskatzen du. Agiri horrek berak aitortzen duenez «lurralde antolaketako zereginetako asko lurralde agintarien mugaz gaindiko lankidetzaren bitartez bakarrik egin daitezke».

Horixe da Eurohiriaren proiektuaren helburua eta ildo horretatik esan beharra dago 1993ko urtarrilean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Baiona-Angelu-Biarritz hiri elkarteak Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren lurralde antolamenduaren proiektua bultzatzea erabaki zutela. Proiektu horren helburua Bidasoaren lehengo mugaren alde bietan dauden errealitate administratiboen gaur egungo elkarketa, mugaz gaindiko izaera duen benetako entitate lurraldetar integratu bihurtzea da.

Europako hiri-sistemaren arkitektura berriak, sarean eratutako hirigune anitzeko metropoli bat eraikitzeko oinarriak jartzen hastea ahalbidetzen du. Horrek, Baiona eta Donostia arteko korridorean ezarritako hirigune ezberdinak batuko ditu, modu horretan guztiak batera funtzionatzeko aukera izan dezaten 600.000 biztanleko hiri-errealitate berria osatuz. Erakundeen arteko adostasuna lortu eta elkar ezagutzen hasteko lehenengo urratsen ondoren, 1997an Interes Ekonomikoko Europako Elkartea eratu zen, Mugaz Gaindiko Behakundea, gero 1999an Eurohiria Garatzeko Mugaz Gaindiko Agentzia bihurtu zena, alde bakoitzeko erakundeek sustatutako baterako ekintzak bultzatu ahal izateko bitarteko gisa.

Hain zuzen ere, horrelako proiektu guztien erronka izaten da filosofiatik ekintza zehatzetara pasatzea. Ondoren, eta Mugaz Gaindiko Agentziaren Batzar Nagusiak martxoaren 22ko bileran onartutako burutzapen planari jarraituz, 2001. urterako zenbait planen aipamen laburra egiten da.

– Lurralde antolaketaren alorrean: Liburu Zuriak intermodalitate, komunikazio eta informazioko plataforma atlantikoa eratzeko egindako hausnarketarekin jarraitzen da.

– Ezagutu jarduteko: abian jarri dira Etxebizitzaren eta Habitataren Behakundea, mugikortasunari buruzko azterketa, eta metropoliko adierazleen bateria bat prestatzen ari dira.

– «Metropoli berdea» eraikitzeko xedez ingurumeneko tailerrean bost talde ari dira lanean: Hiriko Ingurumena, Naturguneak eta berdeguneak, Ura eta hondartza, Hondakinak eta Ekoizpen Garbia, eta, Ziurtagiria eta Ingurumeneko heziketa eta prestakuntza. Abian jarri da lehiaketa bat Gipuzkoak eta Pirinio Atlantikoko kostaldeak osatutako esparruan, 1.050.000 biztanlerentzako hiri hondakin solidoen tratamentuari ekiterik ote dagoen zehazteko. Baiona eta Donostia arteko kostaldearen ezaugarri morfodinamikoen azterketa amaitzen ari dira.

– Hausnarketa akademikoa bultzatzen jarraitzen da, proiektuari lagunduko dion funtsezko osagai gisa. Aipatzekoak dira Eusko Ikaskuntzarekin batera egindako jardunaldi tematikoak eta Udako Unibertsitatearekin izandako lankidetza. 2001. urtean Europa mailako beste ikastaro bat egingo da. Euskal Herriko Unibertsitateko Zerbitzu Publikoen eta Konkurrentzia Librearen Behatokiak aurkeztu berria du Eurohirian hiri zerbitzu bateratu eta integratuak ezartzearen bideragarritasun juridiko eta operatiboari buruzko azterketa. Ondorengo alor hauek aztertu dira: hondakinak, ura, garraioa eta informazioaren gizartea.

– Mugaz gaindiko Geografia Informazioko Sistemak dagoeneko prototipo fasean ditu aplikazio garrantzitsuak, ondorengo hilabeteetan Eurohiriaren web orrian gauzatuko direnak.

– Aldi berean, dinamika propioa hartzen ari dira ondorengo alorretako lankidetzak: kultura, turismoa, kirola, gazteria, ekonomia, Merkataritza Ganbera, osasuna, Abokatuen Elkargoen Behakunde Juridikoa, unibertsitateak.

Bukatzeko, azpimarratu behar da Eurohiria errealitatea dela dagoeneko, baina, hori bai, birtuala Interneten. Teknologia berriek mugak desagerrarazi eta erabateko iragazkortasuna egotea ekarri dute. Eurohiriaren web orriak, *www.euskal-eurohiria.org,* bi aldeetako eskaintza aurkezpen bakar batean biltzea lortu du. Turismoa, kultura, ekonomia eta kirolaren baliabideak eta gertaeren agenda dira web orri horretan azaltzen diren informazioetako batzuk.

zutabea



Ana Urkiza

Nortasun falta, antza

«Espainiak ez du hainbesteko nortasunik». Etorkin batek berriki botatako esaldia da, eta bide batez, komunikabide guztiek jaso dutena. Nolatan esan zezenen eta flamenkoaren herriak ez duela nortasunik? Nola sinestarazi kolonizatzailea izan den herri bati, kolonizatua izaten ari dela?

Egia da, hegoaldeko probintzia gehientsuenetan, eta batez ere uharteetan (Kanariarretan zein Baleareetan) turisten diru freskoaren menera prestatu direla jatetxe, dantzaleku eta enparauak. Egia da baita, etorkina ondo hartu izan duen lurraldea dela Espainia. Kanpokoarekin ondo gelditu nahia antzeman izan zaiola betidanik. Beharbada, kanpotik datozenak, beti ere, ingurukoak baino «gehiago» diren ustean.

Besteen lurraldeak zapalduz doanak beti dauka berea goraipatzeko tentazioa, ordea. Nori ez zaio gertatu bidaian joan, españolito talde batekin gertatu eta kontu eman orduko *Viva España*-ka entzutea nonahi?

Kontua da, herri batek bere nortasunaren oinarri diren egitate batzuk arautu beharra daukala eta egitate horien gaineko jarrera bat bultzatu eta bermatu. Egitate horietako nagusiak, hizkuntza, kultura eta herri horretako bizilagunen eskubideak dira. Zilegi al da bestela, Balear uharteetara joan eta gazteleraz ezin ulertuta ibiltzea? Alemanen diruak bertako biztanleen eta Penintsulatik joan daitezkeenen eskubideek baino gehiago balio al du bada?

Errespetua, besteari harrera erosoagoa egitean datzala erakutsi digute, eta hala behar luke. Baina norberea ahaztu gabe. Nik Alemaniara joan behar izan dudanean, ingelesez ulertzeko zailtasunak izan ditut, bertakoek alemanez baizik ezer gutxi hitz egiten baitute. Arazoak, kolonizatzailearen edo «handia»ren ideia duten herriekin agertzen dira. Gakoa ez dago merkatu legearen menpe, herri batzuek besteak jateko duten joera naturalean baizik. Euskaldunok ere etorkinaren hitzetatik ikasiren bat aterako ote?

kornerra

Mikel Elorza

Zenbakiak

Hogeita bi. Olaia Castresanaren edadea. «Nork ez du maite askatasuna nahiz eta leher dadin esku artean?» kantu bateko letra baino gehiago dela. Kakazaharra. Bizia emateko prest egotetik bizia ematera saltoa dagoela, baina ematen dela. Lau. Zoritxarreko salto horixe orain urtebete batera eman zutenak. Hamazazpi. Autobus bat erretzeagatik neska-mutil batzuek jaso duten zigorra. Munduan diktadurak bilatzen ibili beharra samurtzen duena, aspektu batzuetan joan beharrik ez dago eta. Saltoetara hainbat lagun bidal dezakeena, alegia. Hogei. Kartzelan gero eta euskal herritar gehiagok egiten duen urte kopurua. Izutzekoa. Ez dago burutariketa handiegia egin behar herri honen patuak sorgindutako numero gehiago topatzeko. Gehiegi daude. Tristura, horixe ez dakit zenbakitan neurtzen. Ez dut nahi: egun eskalan oso altua emango lidake herri honek.

hemeroteka

■ **LARRUN**

Arautu gabeko noraezean

(Gari Berasaluze)

«(...) Orain artean, euskal liburugintza arautu gabeko politika baten noraezean ibili da, eta hala dabil oraindik ere. Lekuan lekuko erakunde eta administrazioek eta unean uneko laguntza eta gobernuek kudeatzen duten oraindik gurea. Ez da harritzekoa, beraz, sektorearen arazo orokor eta komunek oraindik irtenbiderik ez izatea, hauei errotik helduko dien araudi bateraturik ez baitugu. Zinez, ordea, euskal liburugintzaren politika kudeatzeko egitura sendo bat behar dugu, araudi bateratu eta bakar bat izanen duena. Noski, araudi hori kudeatuko duen erakundea ere osatu behar da, sektore publikoaren eta pribatuaren partaidetzaz antolatua eta egitura zein gorabehera politikoen ibilbidetik kanpo dagoena. Honela soilik egin ahal izanen diogu aurre behin eta berriro aipatzen ditugun eta oraindik ere funtsezkoak diren arazoei. Funtsezkoak izateaz gain, zenbait, gero eta itogarriagoak zaizkigu gainera. Gero eta beharrezkoagoa da, beraz, lehenbailehen euskal liburugintza arautzeko araudi bateratua osatzea. Euskal liburugintzaren alor guztiak kontuan hartuko ditu araudi horrek, askotarikoa baita euskal liburu ekoizpena, eta alor ezberdinen arabera, arazoak ere ezberdinak baitira. Ezberdinak dira, kasu, kapitalismo basatiaren adierazpide garbia diren eremu handiko saltokiak eta liburu salduenen zerrendek hilzorian utzi dituzten poesia eta saiakera liburuen arazoak, eta zientzia, teknika zein unibertsitate eta lanbide heziketakoenak. Aniztasuna kontuan hartuta, beraz, modu ezberdinean bideratu beharko dira esparru bakoitzeko laguntzak.